



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

A 6599115



BITORIANO GANDIAGA FUNDAZIOA

SIGNISA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Eusko Herriko Funtsak Erregitroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Ministerio de Justicia del País Vasco

Estatutuak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAIALA
Euskal Herriko Fundazioen Erregulazioa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Reglamento de Fundaciones del País Vasco

I KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. IZENA

Bitoriano Gandiaga izenarekin Euskal Autonomia Erkidegoan bere funtzioak garatuko dituen eta bereziki, fundazioaren xedeak gauzatzera zuzenduta dagoen ondare autonomoa duen **hezkontza fundazioa** eratzen da. Fundazioa irabazi asmorik gabea izango da.

Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzko 12/94 Legean eta ezargarri diren gainontzeko arauen arabera eraenduko (gobernatu, administratu) da.

2. ARTIKULUA. GAITASUN JURIDIKOA

Fundazioak berezko nortasun juridikoa dauka Fundazioen Erregistroan inskribatzen den momentutik, zuzenbidezko eta jarduteko gaitasun osoa duelarik.

Ondorioz, ordenamendu juridikoan eraendutakoaren arabera, mota guztietako ondasun higigarri, higiezin eta eskubideak eskuratu, gorde, eduki eta edozein bide erabiliaz eskualdatu, saldu eta zamak jarri ahal izango ditu; mota guztietako kontratu eta egintzak gauzatu, eskubideei uko egin eta epaitegi, auzitegi eta erakunde publiko zein pribatuen aurrean mota guztietako akzio eta salbuespenak tartekatu.

3. ARTIKULUA. IRAUPENA

Fundazioaren iraupena mugagabea izango da. Hala ere, estatutuetan eraendutakoaren (indarrean dagoenaren) arabera Zaingo Batzordeak iraungitzat (bukatutzat, "extinguir") jo dezake.

4. ARTIKULUA. LURRALDE EREMUA

Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzeko ditu nagusiki bere jarduerak.

5. ARTIKULUA. ERAENTZA

Indarrean dagoen araubide juridikoa baztertu gabe, Gandiaga Fundazioa, sortzaileek eratze-egintzan zuzenki edo zeharka adierazitako borondatearen, Estatutu hauen eta Fundazioaren gobernu organoak sortzaileen borondatearen interpretazio eta garapenean ezarritako xedapen eta Euskal Autonomi Elkarteko Legearen arabera eraenduko da.

6. ARTIKULUA. EGONGUA (EGOITZA)


Zarauzko Gipuzkoa, 5 kaleko eraikuntzan izango du finkatua bere egongua Fundazioak. Hala ere, Fundazioaren Zaingo Batzordeak askatasunez egonguaren lekualdaketa erabaki dezake horrela dagokionean, erroldan egongu aldaketa inskribatuz.

Zaingo Batzordeak Fundazioaren establezimendu edo delegazioen egoitzak zehazteko ahalmena izango du.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

6599114



II. KAPITULUA



FUNDAZIOAREN XEDEA
JUSTIZIA LANEA
GIZARTE SEGURANTZA SAIA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones

7. ARTIKULUA. FUNDAZIOAREN HELBURUAK

Fundazio honek berezko jardueren zein beste pertsona fisiko zein juridikoen elkarlaguntzaren bidez, hezkuntzan jardungo du giza-balioen eredia, euskara eta euskal-kulturaren sustapena helburutzat izanik.

Hezkuntza jarduera, bereziki derrigorrezko ondorengo eremuan zentratuko da (Arautuan eta Ez-araudian) eta eskualdeko garapen tekniko, ekonomiko eta sozialaren sustapenean parte hartuko du.

Hezkuntza jardueraz gain ondoko jarduera nagusienak jorratuko dira:

- Helburu berdinez izan ditzaketen bestelako erakundeekin elkarrezagutza sustatu.
- Euskara eta euskal kulturgintzan eta giza-balioen esparruan diharduten eragileen sustapena egin
- Oro har, Fundazioaren helburuak betetzeko interesgarri diren mota guztietako jarduerak

Jarduera horiek ez dute izaera mugatzailerik eta ez dute derrigorrezko egiten guztietan jardutea. Fundazioak, beti ere espiritu zabalaren eremuan, askatasun osoa izango du une bakoitzeko inguruabarrak (zirkunstantziak) kontutan hartuz Fundazioaren Zaingo Batzordearen iritziz egokienak diren jarduera eta xedeetara bere jarduerak zuzentzeko.

8. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Fundazioak interes prokorreko bere helburuen artean, inpartzialtasun eta objetibotasun irizpideen arabera jardun beharko du bere onuradunak aukeratzeko.


Onuradunak nagusiki hezkuntza jardueretan aritzen diren legezko pertsonak zein pertsona fisikoak izango dira.

Zaingo Batzordeak onuradun nagusiak diren pertsonak Fundazioak garatzen dituen proiektuetan pertsona horiek duten inplikazio mailaren arabera aukeratu ditu

9. ARTIKULUA. HELBURUEN GARAPENA

Fundazioaren helburua, ondoko bideen bitartez gauzatuko da:

- Fundazioak berak, Zaingo Batzordeak onartu beharreko jarduketa egitaraua jarraituz, horretarako izendatutako egituren bitartez.
- Legearen arabera diren fundazio, elkarte, baltzu (elkarte, sozietate) edo beste motatako erakunde juridikoak eratuz eta sortzen lagunduz, beti ere 12/1994 Legeko 25 artikulua xedatutako mugen barruan.
- Fundazioaren inguruan bereziki, bere helburuak lortzeko lagungarriak diren beste erakunde edo zuzenbidezko zein pertsona fisikoen jardueraren garapenean laguntza eman.
- Bere helburuak lortzeko asmoz, laguntza ekonomikoa, aholkularitza eta lanbide elkarlaguntza eskaini edo eman ahal izango du Fundazioak. Hortaz gain, edozein motatako dohaintza eta diru-laguntzen ematea sustatuko du.



III. KAPITULUA

FUNDAZIOAREN GOBERNUA

10. ARTIKULUA. ZAINGO BATZORDEAREN OSAKETA

Zaingo Batzardea, Fundazioaren gobernu eta ordezkarietarako organoa da. Zuzendaritza eta kudeaketa kontrola beregain izango ditu Fundazioaren helburuak lortu ahal izateko. Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratuko ditu.

Zaingo Batzardea gutxienez lau eta gehienez hogeita bi kidek osatuko dute.

Eratze eskrituran Fundatzaileek izendatuko dituzte Batzardeko kideak.

Zaingo Batzardeko ondorengo izendapenak Zaingo Batzardeak berak egin edo onartuko ditu, aho batez.

11. ARTIKULUA. ZAINGO BATZORDEAREN AGINTEALDIA

Zaingo Batzardearen kideek, epe mugagabez egikarituko (bete, burutu, gauzatu) dute mandatu hau, kide bakoitzak dagokion entitatean edo kolektiboan kontseilari, administrari edo ordezkari kargua duen bitartean.

12. ARTIKULUA. ZAINGO BATZORDEKO IZENDAPENAK ETA KARGUAK

Zaingo Batzardeko kideek espresuki onartu beharko dute izendapena, eta hala jaso beharko da dagokion erregistroan.

Zaingo Batzardeko kideek dohainik beteko dute beren kargua. Dena den, beraien funtzio eta betebeharren ondorioz sortutako gastuak ordainduko zaizkie, behar bezala egiaztatzen badituzte.

Fundazioaren Zaingo Batzardeak, bere kideen artean Lehendakaria eta Lehendakariordea – Lehendakaria ordezkarietarako duena bera ez dagoenean, gaixotasunen bat duenean edo kargua bete gabe dagoenean – hautatuko ditu. Era berean Idazkaria izendatuko du, derrigorrez Zaingo Batzardeko kidea izan behar ez duelarik.

13. ARTIKULUA. FUNDAZIOAREN ZERBITZURA EGONGO DEN PERTSONALA

Zaingo Batzardeak, Fundazioaren kudeaketa, gerentzia edo fundazioaren izenean egin beharreko zenbait jarduera, gobernu organoko kide den norbaiti edo hirugarren bati esleitzeko aukera izango du, dagokion ordainsariarekin.

14. ARTIKULUA. ZAINGO BATZORDEKO KIDEEN ORDEZKATZEA, KENTZEA ETA EGINKIZUNEZ GABETZEA

Legeak aurreikusitako arrazoi bat dela medio, Zaingo Batzardeko kideren baten ordezkatzea edo kentzea ematen bada, hutsune hauek betetzeko izendapenak Zaingo Batzardeak egingo ditu. Hutsunea ezingo da 6 hilabete baino gehiagoan luzatu.

Epailak kargutik kendu ahal izango ditu Zaingo Batzardeko kideak beraien aurka erantzukizun akzio bat ezartzen denean, baldin eta akzio hori kargua legeak jasotako arduraz ez dutelako bete baldin bada.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

A 6599113

Zaingo Batzordeko kideen ordezkapena, kargu uztea eta etena Fundazioen erregistroan inskribatu beharko da.

JUSTIZIA, LAN ETA ENPLEGU ARLOAN
GABERAKO Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

15. ARTIKULUA. ZAINGO BATZORDEAREN ESKUDUNTZA ETA ESKUORDETZA AHALMENA

Fundazio honen Zaingo Batzordearen eskuduntza, Patronatuen ohiko eskuduntzetara hedatzen da, eta horokorreetan, Fundazioaren goi gobernu eta ordezkarietarekin zerikusia duen guztira.

Hala ere, organo honek bereak eta delegagarriak diren ahalmenak eskuordetu (delegatu) ditzake, Zaingo batzordeko kide bat edo gehiagorengan, kontuan izanda ezin izango direla ordezkotzan eman kontuen eta aurrekontuen onarpena, kudeaketa arruntetik gain dauden egintzak edo Babesletzaren baimena behar dutenak eta fundatzaileak edo estatutuek berariaz debekatutakoak.

Legez eta Estatutu honetan jasotako mugak kontuan izanik, Zaingo Batzordeak fundazioaren xedea lortzeko beharrezkoa baldin bada, hainbat ahalmen eskuordetzeko Batzorde delegatu edo exekutibo bat sortu ahal izango du, baita ahalordetzak ere. Ahalmenak kasuan kasu zehaztuko dira.

Batzorde delegatu edo exekutibo horiek Fundazioen erregistroan inskribatuko dira, beraien errebokazioak ere bai.

16. ARTIKULUA. ZAINGO BATZORDEAREN BETEBEHARRAK

Zaingo Batzordeko kideak behartuta daude:

- Fundazioaren xedea bete eta betearaztera, Legeak eta Estatutuek jasotakoa jarraituz.
- Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak kudeatzera eta kudeatzaile zuzen baten irizpide ekonomiko-finantzarioen arabera produktibitatea mantentzera.
- Kargua legezko ordezkari batek behar duen diligenziaz betetzera.

Zaingo Batzordeko kideek ezingo dute fundazioaren kontraturik izan, Babesletzaren baimenarekin izan ezik.

17. ARTIKULUA. ZAINGO BATZORDEKO DEIALDIAK ETA AKORDIOEN EZTABAIDATZE ETA ONARPENA

Bat. Fundazioaren Zaingo Batzordearen bileretarako deialdia, bilera-eguna baino gutxienez aste bete lehenago egingo du Fundazioko Lehendakariak.

Bi. Baliozko akordioak hartu ahal izateko, Fundazioaren Zaingo Batzordearen kideen gehiengoa beharko da bileran bertaratuta.

Hiru. Zaingo Batzordearen akordioak, bertaratutako erabateko adostasunez hartuko dira.

18. ARTIKULUA. ORDEZKARITZAK, AHALORDETZAK eta BATZORDE DELEGATU

Zaingo Batzordeak bertako kide bat edo gehiagoren esku utzi ahal izango ditu dagozkion ahalmenak edo horietako batzuk. Ezingo ditu inola ere eskuordetu:

- Urteko kontu eta aurrekontuen onarpena.
- Ohiko kudeaketaz gaineko egintzak.
- Babesletzaren onespena behar duten egintzak edo erabakiak.


Aipatutako salbuespenak kontuan izanda, Zaingo Batzordeak Batzorde delegatu eta exekutiboak sortu ahal izango ditu. Kasu bakoitzean zehaztu beharko du zein ahalmen emango dizkion eta nortzuk ahalordetuko dituen.


Eskuordetza eta ahalordetzak Fundazioen erregistroan inskribatuko dira.

19. ARTIKULUA. ZUZENDARITZA

Fundazioko Zaingo Batzordeak Fundazioaren helburuen garapenerako jarduerak koordinatzeko eta kudeatzeko, bertan parte hartzen duten kolektiboen sentsibilitateak bateratuko dituen, Zuzendaritza kolegiatu bat izendatuko du.

Bere aukeraketa, Zaingo Batzordean gauzatuko da.





IV. KAPITULUA

Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

6599112



JUSTIZIA, LAN ETA
ZABALDUREKIN
SEGURANTZA SAILA
Ministerio Fundazioen Erakundeak
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
SEGURIDAD SOCIAL
Ministerio de los Países Vasco

ONDAREA ETA ERAENTZA EKONOMIKOA**20. ARTIKULUA. ONDAREZKO DIRU-IZENDAPENA**

Fundazioaren ondarezko diru-ezarpena horrela dago osatua:

- a) Sortzaileek egindako edo hitzartutako ondarezko (patrimonialak) ekarpenez.
- b) Ondoren jaso edo eskuratu diren eta Fundazioaren ondarea gehitzera bideratuak dauden kantitateak

21. ARTIKULUA. ONDAREA

Fundazioaren ondarea, ekonomikoki baliagarriak diren edozein motatako ondasun edo eskubidez osatua egon daiteke.

Fundazioak aplikagarri zaizkion xedapen eta administrazio betebeharrak kontuan hartuz kudeatuko du ondarea, eta emaitzak Estatutuetan zehaztutako helburuak betetzeko erabiliko ditu.

22. ARTIKULUA. BALIABIDEAK

Fundazioaren helburuak lortzeko behar diren ekonomi baliabideak, ondorengo bide hauetatik lortuko dira:

- a) Eskrituran jasotako hasierako zuzkidura.
- b) Gainontzeko ondasunen fruitu zein errentak.
- c) Mota guztietako pertsona fisiko zein juridikoengandik hartzen diren ekarpen, subentzio, dohaintza ("donación"), jaraunspen (herentzia) edo egintzak (legatuak).
- d) Legezko markoen aplikazioko beste edozein baliabide.

23. ARTIKULUA. SARREREN NORAKOA ETA ADMINISTRAZIO GASTUAK


Bat. Fundazioaren ondasun eta errentak beren helburuak gauzatzera modu zuzen eta berehalako batez lotuak egongo direla ulertzen da.

Bi. Fundazioak bere objektuari dagozkion jarduerak aldizkakotasun batez antolatuko ditu, helburu honekin, zerbitzuen urteko plangintza egin, berauen egikaritza (betetze) modua eta esleipena (adjudikazioa) onartuko direlarik.

Hiru. Fundazioak bere helburuen egikaritzarako, gutxienez, errenta garbien eta beste edozein kontzepturen arabera jasotako sarreren % 70a zuzenduko du jaso direnetik hiru urteko epean eta dagozkien zergak kendu ondoren.

Eraketa momentuan edo ondoren egin diren ondare zuzkidura izaerako ekarpenak, betebeharrak honetatik salbuetsita (kanpo utzi) gelditzen dira.

Gainontzeko sarrerak fundazio zuzkidura gehitzera zuzenduko dira administrazio gastuak kendu ondoren. Azken hauek, ezingo dute %20a gainditu, Fundazioak, arrazoituz egindako eskaeren ondorioz, Babesletzak



JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euzko Lege Erregistroa
Euzko Lege Erregistroa DE JUSTITIA,
Euzko Lege Erregistroa

esanbidez baimena ematen duen kasutan salbuetsita. Guzti hau, indarrean dauden lege eta erregelamendu mailako xedapenen arabera:

24. ARTIKULUA. EKITALDI EKONOMIKOAK

Bat. Ekitaldi ekonomikoa ikasturtearen arabera, irailaren 1ean hasi eta hurrengo urteko abuztuaren 31ean amaituko da.

Bi. Zaingo Batzordeak urteko ekitaldiaren sarrera eta gastuen aurrekontuak onartuko ditu.

Hiru. Sarreraren aurrekontuak, beti ere irizpide zuhurrez kalkulaturik, Fundazioaren ondasunek ekoiztea (sortaraztea) aurreikusita dagoen errendimenduen erlazioa eta 21. c) artikuluan adierazitako kontzeptuengatik sarrerak barneratuko dituzte.

Lau. Gastuen aurrekontuak, ekitaldian egingo diren aurreikuspena barneratuko du, eta hauen artean, gutxienez, ondarean baliogalera edo galtzeari dagozkion mantentze eta amortizazio gastuak, giza-baliabide eta administrazio gastuak eta jarduketa egitarauaren arabera Fundazioaren helburuak lortzeko erabili behar diren kopuruak.

Bost. Ekitaldian bertan agertzen diren beharrei aurrekontua egokitzeko beharrezko edo komenigarriak diren aldaketak egin ahal izango dira.

25. ARTIKULUA. KONTUAK EMATEA

Zaingo Batzordeak ziurtatu egin beharko du fundazioaren helburuen arabera burutu duela kudeaketa. Horretarako, 12/94 Fundazioen Legean jasotakoa kontutan hartu beharko da.

26. ARTIKULUA. ONDAREAREN INBERTSIOA

Bat. Fundazioaren ondarea errentagarritasun handiena lortzeko egokiena den moduan inbertituko da, beti ere, estatutuetan ezarritako hitzarmen edo Fundazioaren baliabide ekarpenak egin dituztenekin hartutako akordioak, indarrean baldin badaude, errespetaturik.

Bi. Fundazioak, edozein momentutan eta behar den guztietan, bere ondarearekin egindako inbertsioetan ekonomia-egoeraren arabera egokiak edo beharrezkoak diren aldaketak egin ahal izango ditu, benetako balioa jaitsi ez dadin saihesteko.


Hiru. Fundazioaren ondarean dauden titulu-balioen jaulkitzaile diren sozietateek beraien akziodunei lehentasunezko izenpetze eskubideak emanaz kapital soziala handitzen dutenean, handitze hori adierazten duten akzioak izenpetu edo izenpetzeko eskubidea saltzea erabaki dezake Fundazioak.

Edonola ere, Fundazioak kapital handitze horietan parte har dezake, nahiz eta sozietate jaulkitzaileak beste ondare-ekarpen osagarri bat galdatu (eskatu, erreklamatu, exigitu).

27. ARTIKULUA. ENPRESA-JARDUERAK

Fundazioak, helburuekin bat datorrenean edo helburuen esanetara dagoenean, merkataritzako edo industriako jarduerak egin ahal izango ditu bere kabuz.

Merkataritzako edo industriako jarduerak baltzuen bitartez egiten baditu, hauek bazkideen erantzukizun mugatukoak izan beharko dute.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial

A 6599111

V. KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA ETA AMAITzea

28. ARTIKULUA. ESTATUTUEN ALDAKETA

Fundazioaren Zaingo Batzordeak, 7. artikuluan ezarritako helburua errespetatuz, Fundazioaren Estatutuen aldaketa erabaki ahal izango du. Horretarako beharrezkoa izango da Zaingo Batzordeko kideen erabateko adostasuna.

29. ARTIKULUA. BATEGITE, DESEGITE eta LIKIDAZIOA

Fundazioaren bategite, desegite edo likidazioa aho batez erabaki beharko du Zaingo Batzordeak aurrera eramateko.


30. ARTIKULUA. KITAPENA

Fundazioaren kitapena egin ondoren gelditzen diren ondasun eta eskubideak Zarauzko San Frantzisko 2 zk. egoitza duen Convento de San Juan Bautista de la Orden de los Frailes Menores-en eskuetara itzuliko da.

31. ARTIKULUA. IRAUNGIPENA

Bat. Fundazioaren Zaingo Batzordeak Fundazioaren iraungipena erabaki dezake, dagozkion ondorioetarako Babesletzara bidaliz. Zaingo Batzordeak aho batez hartu beharko du erabakia.

Bi. Zaingo Batzordearen erabakiaz gain, legeak araututako egoeretan ere iraungiko da Fundazioa.



VI. KAPITULUA

FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEAK

Atxikitako Fundatzaileak. Behin Fundazioa eratuta eta fundatzaile izaerarekin, beste pertsona fisiko zein juridikoak atxiki ahal izango dira Zaingo Batzordeak egoki baderitzo.

Zaingo Batzordeak erabakiko du fundatzaile berriek egin beharreko kontribuzio ekonomikoa.

Atxikitako Laguntzaileak Behin Fundazioa eratuta eta atxikitako laguntzaile izaerarekin, beste pertsona fisiko zein juridikoak atxiki ahal izango dira, Fundazioaren helburuak lortzen lagunduko dutela uste badu Zaingo Batzordeak.

Zaingo Batzordeak erabakiko du laguntzaile berriek egin beharreko kontribuzio ekonomikoa.

Zaingo Batzordeak hala erabakiko balu, atxikitako laguntzaileek Zaingo Batzordean parte hartu ahal izango dute.

Ohorezko Laguntzaileak Fundazioaren helburuak lortzen modu aipagarrian lagundu edo laguntzen duten pertsona fisiko zein juridikoak Ohorezko Laguntzaile izendatu ditzake Zaingo Batzordeak.

Idazkaria

Lehendakaria